

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Atzera eta aurrera

Kolpetik zazpi jo, edo ale bakar bat jarri jokoan, galtzeko bada ere? Hordagoarekin mehatxu egin, edo enbidotxo mahai gaineratu, arerioa nola dabilen ikusteko? Paso eginda jai dugula ohartu eta gero erabili beharreko estrategia zehaztea ez da lan erraza izango.

Italiako Faenza hirian jokatu berria da goma gaineko munduko sokatira txapelketa. Bertan izan dira Euskal Herriko ordezkariak: Badaiotz neska mailan, eta Abadiño, Baiona, Ezpeletako Napurrak eta Berriozar gizonetzkoetan.

Negua oso luzea izan ohi da sokan dabilzanentzat. Astean hiruzpalau entrenamendu eta, behin udaberrian sartuta, jatekoari begiratu behar pisuan sartzeko. Motibazioa topatzeko entrenamendu osteko berriketaldiak. Hango txapelketan lortutako garai-pena, irlandarren aurkako tiraldia, japoniarren beroa, suitzarren presioa sartzeko ahalmena, holandar beteranoen pazientzia. Goma berrian edo lur gaineko lehiatan aurkaria zulotik ateratzeko erabilitako teknika. Eta hurrengo egunean berriro entrenamendua.

Orain hiru urte gure ordezkariak “herri bat gara eta herri bezala parte hartu nahi dugu txapelketa ofizialetan” aldarrikatu zuten. Eta parte hartu ahal izateko baldintzak erabat gogortu zituen TWI-Fek, Nazioarteko Federazioak, alegia. Espainiako edo Frantziako banderapean azaldu behar izateko gogorra da askorentzat. *Txunda txunda* edo *Marseillatik* etorritakoarena entzun beharra jasanezina gehientzat. Ondorioz, bertako txapelketak



DANI BLANCO

soilik, bertako herrikideekin, bertako zelaie-tan indarrak neurtzeko eta urte amaieran ezin jakin gainontzekoak nola dabilzan. Gutxitxo neguko hotzetan etxeko epela utzi eta entrenamendura azaltzeko.

Hamalau jo genituen eta Naziarteko Federazioako presidentek, Ko Coren jaunak, inork uste ez zuela, dupleak zeuzkan.

Italian ikusi da egoera zertxobait aldatu dela. Coren holandarrek presidentzia utzi behar izan du gure egoera hobetotxo ezagutzen duen irlandar baten esku. Federazioko eta Jaurlaritzako ordezkariekin eginiko bileran egoera zuzentzen saiatu dira eta epaileak txistua jo duenean sokaren alde batean euskaldunak zeuden berriro. Ez, nahi bezala nazio mailako lehian, ez ikurriña edo Nafarroako Erresumako banderapean, baina han, nazioarteko klub mailako sokan. Enbido bat edukitzen asmatu eta “sikuelakoa” harrapatuta, hiru alerekin etxera: bi urrezkoak eta brontzekoa hirugarrena.

Azken hiru urtetan eginiko okerra zuzentzen hasteko parada dugu. Ganbaran hautsak estalitako sokak astintzeko garaia da. Faenzakoa pausu txikia da eta segidakoak guk eman beharrekoak. Nazioarteko arduradunak ohartu dira lehiak asko galtzen duela euskaldunen kemenik gabe. Haiek ere jo zituzten elizako teila guztiak karta onegiak izan gabe. Alderik handiena jokoan dagoena da. Nazioarteko Federazioa kirolari buruz ari da, guk, garena, izaera, dugu jokoan. Hurrengo zita irailean, Suedian. Ganbaran gordetako sokei hautsak kentzeko bada denborarik. ■



Alderik handiena jokoan

dagoena da. Nazioarteko

Federazioa kirolari buruz ari

da, guk, garena, izaera,

dugu jokoan



TXANDAN
Igor Estankona



Edo beste Amerika. Amerikari bihozbera

bezain erreala baita, zoritxarrez, aurka gauzkan Amerika. Emakumeak elkarrengana biltzen hasi ziren emakume zirelako, euren emakume izaeragatik. Hori aldaketa itzela izan zen, eta AEBetan gertatu zen lehen aldiz modu zabal, argi eta antolatuan. 1968an ehortzi zuten sinbolikoki milaka emakumek feminitate tradizionala, hura izan zen *The Burial of Traditional Womanhood*. Eta zeremonia oraindik ez da bukatu baina hasi, benetan hasi, emakume pobreak eta emakume beltzak altxatu zirenean hasi zen, lehenengoz

Benetako Amerika (V)

galdezu ziotenean elkarri: eta zu, zelan zagoz zu?

Atlantan —pentsa,

Atlantan— kaleak moztu zituzten, ekonomatoa, haurtzaindegia, eskatzen zituzten. Helen Howardek dio denak zirela bat, musika jarri eta dantza egiten zutela kale-kalean, ez zituztela atxilotu, ezin zituztela atxilotu gehiegi zirelako.

Eta Bostonera iritsi berria zen emakume beltz bat tuneletik irteten hasi zen onartu zuenean, edo onartu baino gehiago azaleratu, kanporatu, nabarmendu: “Soilik sentitzen naiz bizirik ume bat daroadanean sabel barruan”. Hori aldatu gura zuten. ■